
e5 kongresuaren adierazpena

Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenari begira abiatu ziren bost lan-ildoen artean e5 izenekoak (Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen) 2018ko urriaren 19an burutu du bere Kongresua Gasteizen. Bertaratuek, lan-ildo honetan egindako lanaren ondorio den e5 Kongresuaren adierazpen hau sinatu dute, euskal gizarteari, erakundeei eta eragileei eskaintzeko, euskaraz bizi, garatu eta munduratu nahi duen komunitateak behar duen akordio sozial eta politiko sendo baten abiapuntu gisa.

e5 dinamikaren lana Eusko Ikaskuntzak sortutako Talde Eragile batek gidatu du eta hiru mintegi irekitan mamitu da, erakundeen eta gizarte esparru zabaleko eragile askoren partaidetza handiarekin. Metodologia berritzailea erabili da: hausnarketaren fokua ez da euskararen egoera izan, bere komunitatearen kapitalak baizik; eta kapital ezberdinetan dituen edota behar dituen aktiboetan zentratu da.

Horrenbestez, lehenik, komunitateak sei kapitaletan egun dituen aktiboak identifikatu ziren eta kapital/aktiboen mapa osatu zen; ondoren, 2040ko jomugan sei kapital horietan nahi liratekeen aktiboen konstelazioak irudikatu ziren; eta azkenik, konstelazio horiek eraikitzeko ekinbide gakoaren arkitektura landu da.

Egindakoaren emaitzak eta xehetasunak Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zurian (ikus 18-59 orriak) daude jasota. Adierazpen honek proposamen nagusiak laburbiltzen ditu, eta akuilu funtzioa izan nahi du, prozesuaren emaitzak gauzatu daitezten.

